

ETXAURIKO ZERTZELADA HISTORIKOA

Ez da oso ezaguna Etxaurik mendez mende egin duen ibilbidea. Argitalpen gutxi plazaratu da horren gainean eta lan horiek, gainera, barreiatuak daude; hala ere, lagungarri zaizkigu Iruñerriko ibarrik adierazgarrietako bateko herri nagusia historian kokatzeko. Etxauribarrek herri hauek ditu: Ubani, Zabaltza, Arraitza, Belaskoain, Bidaurreta, Etxarri, Ziritza eta Etxauri.

Hona hemen Etxauribarko mugak: iparraldean, Sarbil mendia eta, hegoaldean, Erreniega mendia, Nafarroako toki-izen aunitzekin gertatu den bezala, erdarazko El Perdón izenarekin birbataiatua, barkamen jubileuak gogora ekartzen dizkiguna. Badakigu jendea duela 18.000 urte inguru finkatu zela. Horren lekuko dira orain arte aztertutako historiaurreko hogeitazazpi aztarnategiak: Goi Paleolitik hasi eta Burdin Arorainokoak.

Hainbat arkeologok indusketak eta azterketak egin dituzte gure inguruan: Blas Taracena berrogeiko hamarkadan aritu zen Santo Tomas eta Leginen; Juan Maluquer de Motes, hirurogeiko hamarkadan, Harginaren Kobazuloan (Cueva del Cantero); Amparo Castiella, laurogeiko hamarkadan, Leginen; Mikel Etxegarai, gure mendearen hasieran, San Kiriakon; eta, batez ere, Javier Nuin. Azken horrek lan ugari eginak ditu Eusko Ikaskuntzan, Vianako Printzean eta Salamancako Unibertsitatean. Nuin, zehazki, Ziritzako kobazuloan eta Harginaren Haitzeko berokietan aritu da (zehazki, aldare bat dago, eta litekeena da ospakizunezko sakrifizioetarako erabili izana, berezko gotorleku gisa ere Burdin Aroz gerotzik), bai eta aztarnategiotan ere: Viña de la Peña, Peña Roya, Muruko kobazuloak, San Kiriako, Lezea, Matxamendi, Legin, Legintxiki eta Leginpea. Gehienak izaera defentsiboko bizilekuen, errausketa-ehorzketen eta paleolito ondoko arte garatu gabearen adierazpenak dira.

Era berean, Sarbilgo beroki jakin batzuetan joera naturalistako horma-pinturak agertu dira; lerro eskematikoko eta tinta lauuko irudi zoomorfoak, xede lagungarri batekin egindakoak, ziurrenera.

Beste alde batetik, Legin, Legintxiki eta Leginpea inguruan agertutako aztarnategia inguru totemikoa da, zalantzarik gabe. Aztarnarik zaharrenak Epigravete eta Solutre aldikoak dira, Burdin Arora arte iristen direnak. Lur azalean harri-industriaren arrasto asko agertu dira eta, batez ere, "likiñarri" aunitz; hau da, kareharri oso porotsuak.

Etxauriko historiaurreko biztanle haiek ehiztariak ziren (basurdeak, sarrionak eta orkatzak), eta Sarbileko iturburu termal eta sufretsu ugarietara ura edatera joaten ziren animalien zelatan ibiltzen ziren. Era berean, biltzaileak ziren, erdi nomadak; bestalde, Neolitoraino ez zen jendea hasi Arga bazterreko zelai zabalak lantzen;

arrantzan ere aritu ziren, kalamuzko sareak eta silexezko arpoiak erabilia; gorpuak kobazuloetako lur azpian ehorzten zituzten, eta zeramikazko tresnak egiten hasi ziren.

Adituen ustez, dena den, Etxauri, bizitzeko nekazaritza-lurraldea baino gehiago, “inguru sakratua” izan zen, eta inguru hartan santutegiak zeuden, hierofaniekin eta Naturako indarrak gurtzarekin lotutako errituak ospatzeko.

Brontze Aro betean, txabola barreiatuak elkartu eta elementu jakin batzuek hornitu ziren: putzuz, siloz eta harresiz, esaterako. Burdin Aroan, egoera aldatu, eta berriz ere defentsa eta estrategia izaerako lekuei garrantzia eman zitzaion. Etxauribarren horixe gertatu eta, poliki-poliki, gure bazterrak jendeztatuz eta nolabaiteko hiri-egiturako lehen guneak osatuz joan ziren; horrekin batera, gizarte-antolamenduaren ernamuina sortu zen.

Zelten eta iberiarren inbasioek eraginda, baskoiek (barskunak edo baskunak) iparralderantz jo zuten, inguru menditsu eta oihantsuen bila. Aro horretako arrasto gutxi agertu dira Etxaurin eta, horien arabera, ekonomia nagusiki bilketan eta abeltzaintzan zetzan.

Etxauriko ezaugarriak ezin hobeak ziren erromatarren kokalekuetarako: klima leuna, ibai nabarmen bat, ur termaleko iturburuak, komunikazio onak, alubioi-lur zabal egokiak mahastiak lantzeko, eta defentsa-izaerako talai ugari. Erroma gure lurraldean finkatu zen, froga batzuek agerian utzi duten bezala: *villae* bateko horma bat eta brontzezko xafla-zati bat Etxauriko Erremedioetako Ama Birjinaren basilikaren ondoan; Iberoko termen arrastoak; Belaskoango aldea eta *terra sigillata* eta *olearia* motako zeramika puskek; Bidaurretako zutabearen fustea; Etxarriko miliarioa; Paternaingo jendegunearen aztarna adierazgarriak (berrikitan, etxebizitza atxikien auzoberri batek hondatua, Paternanbidea-ko aztarnategiaren ondoan, Neolitikokoa); latinak toponimian utzitako arrastoak.

Etxauriko lehen berri idatzia 1055. – 1069. urteetako da, eta herriaz esaten zen “errege-jaurerria” zela. Donejakue Bidearen bide nagusiari adar bat ateratzen zitzaion Galarren, Erieteko Jaurerria zeharkatu, Etxauri gurutzatu, Santa Kruz ermitaren ondok mendatea gainditu eta Irantzuko Monasterioraino iristeko. Erdi Aroaren erdian, Etxauri eta Otazuko Jaurerria herri garrantzitsu samarra ziren; horren erakusgarri dira Comptoen hainbat idazpen, defentsa-dorreen sarea (trazua kontserbatzen da) eta, berrikitan, Erremedioetako Ama Birjinaren ermita inguruetan agertutako nekropolia, Ikerrea kalean: zehazki, bi ehorzketa mota daude: “horma” eta “zista”. Ehorzketen tipologiari erreparatuta eta arrastoen izaera kontuan hartuta, uste izatekoa da lotura dutela izurrite beltzarekin. Gaitz horrek Nafarroa eta Europa gogor jo zituen, XIV. mendearen erdialdean.

Erdi Aroko gizarte-egiturak estamentutan oinarrituriko izaera feudala zeukan. Hura gizarte itxia zen eta basailutza-loturez osaturiko sare korapilatsu baten bidez egituratua zegoen. Biztanleen % 90 nekazaritzan aritzen zen. Hala ere, feudalismoaren erdi-erdian egonda ere, Nafarroan hainbat berezitasun azpimarragarri egon ziren. Izan ere, ohiturazko lege ez-idatziek arian-arian gero eta gehiago mugatu zuten jaunaren eta erregearen beraren boterea; lege haiek, ondoren, Foruan bildu ziren. Hortik XIII. eta XIV. mendeetako Juntak atera ziren, aitonen semeez, zaldunez, elizgizonez eta nekazariez osatutakoak. Etxauribarren, herri bakoitzeko kargudunak edo zinegotziak Artazeako artadian biltzen omen ziren, Etxauri eta Zabaltza artean.

Kargudunek kargudun nagusi bat hautatzen zuten, gure Ibarreko ordezkaria izan zedin. Kargudun nagusiak zin egiten zuen defenditu egingen zituela batzarrak hartutako erabakiak. Batzarburuari buruzagia esaten zitzaion, eta buruzagi horrek zigorrak betearazteko ardura zuen. Zina korporatiboa eta elkarrekikoa zen, eta oinarri nagusia askatasuna defendatzea zen. Obanosko Infantzoien Junta, adibidez, antolatu zen, "gure interesak nobleen, aberatsen eta, oro har, gaiztoen bidegabekerietatik babesteko".

Errege Karlos III.a Prestua 1425ean hil ondoren, krisi instituzional sakonak gogor baino gogorrago jo zuen Nafarroa. Horren ondorioz, *beaumontarren* eta *agramondarren* arteko gerra latza gertatu zen; urteak joan urteak etorri, horrek XVI. mendearen hasieran mesede egin zien Fernando Faltsutzailearen gibelasmo anexionistei. Azkenean, Albako Dukearen agindupeko armada profesional batek Nafarroa 1512an inbaditu zuen; hura Nafarroa defenditzeko armada baino askoz ere ahaltsuagoa zen. Aragoiko Kantzelaritzak *Pastor ille coelestis*, *Exigit contumation* eta *Etsi obstinati* buldak faltsutu zituen, aita santu Julio II.aren isiltasun konplizearekin; buldek Nafarroako errege-erreginak eskomikatu zituen, baita haiei obeditzen zietenak ere. Bidegabekeria 1515ean eraman zen bururaino, *beaumontarrek* lagunduta, Leringo Kondea buru zutela. Nafarroa Gaztelako kolonia bihurturik gelditu zen.

Iseka mingarria da esatea Nafarroa "Gaztelako erresuman zorientasunez sartu zela", gaur egungo intelektual organiko zenbaitek dioten moduan. Hura zuzenbide ororen kontrako okupazio militarra izan zen, odolez eta suz egindakoa, eta gure europar Estatuaren subiranotasunaren amaieraren hasiera ekarri zuena. Hala eta guztiez ere, Nafarroak eutsi egin zien bere berezitasunei bai legetan, bai forutan bai gobernuan, 1841eko Lege Itundua delakoak haiek ere ezabatu zituen arte. Orduz geroztik, Nafarroa Espainiako estatuko probintzia hutsa bilakatu zen.

Etxauriar gehienek *agramondarren* alde jokatu zuten eta gogo biziz Gaztelari kontra egin zioten. Luza gabe, ordea, ordainak iritsi ziren: jazarpenak, isunak eta

defentsa-dorre sendoen goialdea eraitsi zen. Amaiurko gaztelua izan zen gaztelarren eta aragoitarren inbasioari aurre egin zion azken gotorlekua. Han barruan, gutxienez gure Ibarreko zi zaldun aritu ziren borrokan: Joanes Arbizukoa eta Migel Zabaltzakoa. Beste zaldun batzuk espetxeratu zituzten eta ondasunak bahitu zizkieten: Otazuko jaunari eta Pedro Berriokoari, adibidez. Harena zen, esate baterako, San Zernin Burguko Tecenderias karrikako jauregia, Karlos I.ak 1524an bahitutakoa; han, Diruaren Etxea eta Comptos Ganbera ezarri ziren.

Gure erresumak lurralde gehienak galdu zituen, Nafarroa Beherea izan ezik, eta hala izan zen harik eta 1620an, Nafarroako eta Frantziako Luis XIII.a errege absolutistak gure erresumaren azken zatia Frantziako koroari eratzkitzea erabaki zuen arte.

Oso urte latzak izan ziren haiek, eta Etxauribar egoera berrira moldatzen saiatu zen. Gaztelako administratzaile berriak (besteak beste, Alburquerqueko Dukea eta Valparaisoko Markesa erregeordeak) behin eta berriz ahalegindu ziren jendea armetarako biltzen, Iparraldeari eraso egiteko. Alferrik, ordea. Idazki batzuetan erregeordeak saminki kexatzen dira Gortearen aurrean, gure herriko biztanleek inola ere laguntzarik eman nahi ez dutelako, ezta diru truk ere. Gauza bera gertatu zen, urteak joan urteak etorri, Ondorengotza Gerran eta Konbentzio Gerran.

XVI. eta XVIII. mendeetan, "auzotasun" eskubidea eskuratzeko, etxe baten jabea izan beharra zegoen, eta auzokideei "kolazioa" edo otamena eskaini behar izan zitzaien. *Auzoak* bazuen eskubidea herriko urak, belarrak, harriak eta egurra erabiltzeko; eskubidea ere, Ibarreko Kontseilu Juntetara joateko eta erregidore izateko.

Biztanleak auzotasun-etxerik gabeko nekazari txiki guztiak ziren; nekazaritzan eta abeltzaintzan besteen kontura aritzen zen jendea: adibidez, artzainak, peoiak (lurrak lantzeko, segatzeko eta uzta biltzeko), eta era berean, ehiztariak, arrantzaleak, larruginak, egurgileak, etab. Gero, bestelakoak ere bazeuden: "estantes", "pasantes" eta "foranos" delakoak, hau da, herriz herri zebilen jendea, edota herriko etxe batean denbora puska baterako bizi zena edo ostatu hartuta zegoena.

Azkenik, aitonen semeak (landako behe-noblezia) errentetatik bizitzen saiatzen ziren, baina gero eta ahalegin handiagoz, ez baitzuten inolako esku-lanik egin nahi. Horrek eta beste gauza batzuek eraginda, estamentuen arteko aldeak murriztuz joan ziren eta, laster, nekazari askok, beren lanari esker, aitonen seme aunitzek baino diru gehiago bildu zuten. Horren ondorioz, klaseen arteko ezkontzak egin ziren, gero eta gehiago, eta nola halako berdintasuna zabaldu zen.

Garai horretan sakontzeko, oso interesgarria da Etxauriko bertako historialari Enrique Navascues argitara emateko zorian dagoen azterlana.

Mendez mende aberastasun-iturri nagusiak nekazaritza (laborea eta mahastia, batez ere) eta abeltzaintza izan dira. Ogibideei dagokienez, hona hemen Etxaurin erasota daudenak: kisuskilea, al baitaria, molduren ebanista, artisaua, bizargina, arpillera-ehulea, hargina, ebakitzaila, morroia, eskribaua, zurgina, arotza, juglarea, merkataria, maisua, zeramista, emagina, moztaila, larrugina, zilargina, txerrizaina, jostuna, danborraria, ehulea, botikaria, igeltseroa eta zapatagina.

Independentzia Gerran (1808 – 1812) etxauriar asko frantsesen aurka borrokatu ziren; batzuk Mina El Mozoren *Curso Terrestre* esaten zitzaion taldean; beste batzuk, Pedro Miguel Sarasa “Malalma”-ren taldeetan, eta gehienak Gregorio Krutzaga Urzainkiren agindupean. Belaskoainen, Ibarreko espioitza-gunea zegoen, Nafarroa Dibisioko buruari, Francisco Espoz y Minari, frantsesen komunikabideen berri emateko.

Gerrak sekulako diru ondorio larriak eragin zituen Nafarroan. Izan ere, frantses okupatzaileek nafarrei ia laurogei milioi erreal zilarretan kobratu zizkieten zergetan; 12.300.000 erreal gehiago, itzuli gabeko diru-mailegutuan, eta 20.000.000 isunetan. Horri erantsi behar zaio dozenaka tona gari eta garagar bahitu zituztela, bai eta milaka abelburu ere.

Ugariak izan ziren jendearen kontrako jazarpenak, eta ugariak ere borrokan hildakoak; zoritxarrez, ordea, ez daude ongi dokumentaturik. Badakigu Etxaurin herriko erregidorea, José de Unanua, fusilatu zutela 1811ko maiatzaren 11n, gerrillari laguntza emateagatik. Agindua Reilleko Kondeak berak eman zuen, hau da, oste frantsesek Nafarroan zuten komandanteak.

Bi Karlistaldiek ere (1833 – 1840 eta 1872 – 1876) eragin handia izan zuten Etxaurin. Gehien-gehienak karlistak ziren, baina ez dinastia-kontu hutsengatik, baizik eta batez ere beren askatasunen alde egiteagatik, herri-lurak defendatzeagatik, foru erakundeen alde eta oro har, bere bizimoduaren alde egiteagatik. Erregimen liberalak indarrean jarritako desamortizazioek izaera aurrerazalea omen zuten, ilustrazioaren aurrerapenak ekartzeko; neurri haiek, ordea, nafar nekazari gehienak pobrezia gorrira eramanean zituzten. Izan ere, herri-lurak eta “esku hilak” delakoen jabetzapeko lurak saldu egin ziren, eta horrek nobleziari eta hiriko burgesiari egin zien mesede, ez beste inori, dirua haien eskuetan zegoelako. Kasurik hoberenean, herritar xeheak behartuta egon ziren lurjabe handien peoi izatera. Horrenbestez, praktikan, erregimen feudala itzuli zen, noiz eta Europako gainerako herrialdeetan industria-iraultza goren unean zegoenean.

1840an, Lehen Karlistaldia galdu eta, handik urtebetera, gure subiranotasun politikoaren gainerako ahalmenak galdu ziren. Tresna bat erabili zuten horretarako, lege bat, itundua esaten zaiona, baina aldi berean faltsua, irabazleek galtzaileei inposatutakoa. Galtzaileen izenean, izan ere, Diputazio amore-emaile eta konplize bat aritu zen, eta egun boterean dagoen eskuinarentzat, lege faltsu hura da autogobernuari ezarri behar zaion muga. Izan ere, gauza asko galdu genituen: Erresumako Diputazioa, Gorteak, aduanak, Espainiako armadan zerbitzua egitera behartu gintuzten, eta gure zerga-sistema eta gure lege bereziak ia bere osotasunean ezabatu ziren.

Aduanak Ebrotik Bidasoara eramane ziren, eta Etxauriko nekazari askok Espainiako industria-eremuetara jo behar izan zuen eta, batez ere, Amerikako hainbat herrialdetara.

Euskara, mendez mende nafar gehienek hizkuntza izan dena, gure nortasunaren ikur nagusietako bat ere bada; gorabehera latz haien guztien ondorioz, atzera egin zuen denbora labur-laburrean. Galera azken urteotan gelditzea lortu da, ikastolen inguruko herri mugimenduak euskalduntzearen alde egindako ahaleginari esker.

1876an, Bigarren Karlistaldia galdu zen eta, horren ondorioz, galdu ere egin ziren gure subiranotasuna berreskuratzeko asmoak: horrek hatsa eman zion zentralismo espainolari, eta foru erregimenak behin betiko galdu ziren. Gauzak horrela eta, betiko erakundeak galdu izanak foruzaleen artean eragindako etsipenaren ondorioz, euskal nazionalismoa sortu zen.

Azken hatsetan zegoen XIX. mendeak, ordea, zoritxar gehiago ekarri zituen. Horrela, 1892an, filoxeraren intsektuak Pirinioen gainetik jauzi egin eta nafar mahastiak jo zituen. Gaitz izugarri hura, lehendabizi, Etxauri eta Arangurenen barrena zabaldu zen. Nafarroako mahastiek hartzen zituzten 50.000 hektareatatik, gaitzak 48.500 txikitu zituen. Nekazari familia askok erreka jo zuten, eta horrek berekin ondorio latzak ekarri zituen gizartera eta demografiara.

XX. mendeko lehen urteetan nola halako susperraldi ekonomikoa gertatu zen; oparoaldiak, ordea, gutxi iraun zuen. 1932an, Errepublika ezarri eta urtebetera, Nafarroak onetsi egin zuen Euskal Herriko Autonomia Estatutua, botoen % 89,93rekin. Hura galdutako subiranotasunaren zati bat berreskuratzeko saioa izan zen, gainerako euskaldunekin bat. 1936ko uztaileko estatu-kolpe faxistak eragindako Gerra Zibilak, ordea, hura guztia odoletan ito zuen. Gerraren ondorioak kalkulaezinak izan ziren, gure gizartearen bizkarrezurrari berari eragin ziolako, eta handik aurrerako bizikidetzak baldintzatu zuelako. Nafarroan ez zen sekula gerra-fronterik izan, baina errepresioak 3.000 hildako baino gehiago utzi zituen ezkerreko alderdietako jarraitzaile eta kideen artean; haietako asko lurrik gabeko nekazariak

ziren, garai batean karlistak izandakoak, Errepublikako urteetan herri-lurren eta “korrailizen” aldeko borrokan ibilitakoak. Gerra horretan, herri guztietan senideak senideen aurrean egon ziren, elkarren aurka etsaiturik. “Nazionalen bandoan deitutakoan borrokatu ziren 41.000 nafarretatik, frontean 4.500 inguru hil ziren, haien artean Etxauriko hainbat lagun. Bestalde, 4.000 eta 5.000 lagun artean aritu ziren Errepublikaren legalitatearen aldeko borrokan, eta haien artean ere asko eta asko hilik gertatu ziren.

Carlos Catalán